

Altsasuko Udalak, 2016ko azaroaren 16an egindako bilkuran, honako adierazpen instituzional hau adostu zuen:

### **ADIERAZPEN INSTITUZIONALA**

1.- Honen bidez azaroaren 14an atxilotutakoen senideen sentipena gure egin nahi dugu, defentsarik gabe, babesgabe eta seme-alaben etorkizunagatik oso kezkatuta baitaude, gertakariak gehiegi puztu direlako eta Auzitegi Nazionalak gertakariak terrorismo ekintzatzat jotzean balitekeelako neurri gabeko zigorrak bete behar izatea.

2.- Hori dela eta, Nafarroako erakunde guztiei (governua, legegilea eta epaitegiak) babesa eskatu nahi diegu gertakariak Iruñeko 3. zenbakidun Instrukzio Epaitegian epaitu daitezten. Izan ere, han hasi zen instrukzioa eta han dago Foruzaingoaren txostena, bera izan baitzen auziaren ardura hartu zuena eta auzian eskuduna dela uste dugu.

3.- Altsasuko Udalak, epai judizialak errespetatu arren, gertakariari "terrorismo delitu" zigor-kalifikazioa ematearekin ados ez dagoela adierazi nahi du. Era berean, atxilotetak egitea eta kautelazko neurriak hartzea ez zela beharrezkoa adierazi nahi dugu.

4.- Era berean, elkartasuna adierazi nahi diegu gertakari horiek kaltetutako pertsonei, gure ustez, horrelakorik ez baitzuen inoiz gertatu behar, baita, jakina, Altsasuko herri osoari ere. Halaber, eskerrak eman nahi dizkiogu herriari gertakariaren aurrean erakutsi duen jarreragatik.

5.- Altsasuko Udalak herrian bakearen eta bizikidetzaren aldeko apustua egin nahi du, eta horretarako elkarrizketa eta guztion ardura-jarrera indartuko ditu.

6.- Altsasuko Udalak erabateko arbuioa azaldu nahi du gure herriaz eman den irudia dela-eta, ez baitu errealitatearekin zerikusirik. Halaber, ezetsi egiten du hainbat hedabidetan gazteen bizitza pribatuari eta adin txikikoei buruz eman den informazioa.

7.- Altsasuko Udalak manifestazio baterako deia egiten du azaroaren 26an, larunbata, 13:00etan, "ALTSASU" lemapean. Herritar guztiak animatu nahi ditugu bertan parte hartzera.